


KARLOS LINAZASORO

DÜSSELDORF

eko
Txibatoa



n a r r a t i b a

erretiko

DÜSSELDORFEKO TXIBATOA

n a r r a t i b a • 160

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko urrian

Azalaren diseinua eta maketazioa:

Erein

© Karlos Linazasoro

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-054-4

L. G.: D 827-2025

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea 9

20560 Oñati

T 943 78 33 09

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net




Liburu hau inprimatzeko erabili den papera
ekologikoa da eta modu jasangarrian
kudeatutako basoetatik dator.

KARLOS LINAZASORO

DÜSSELDORFeko

Txibatoa





Gaizki aparkatutako auto bat ikusi dut, ezkerreko atzeko gurpila espaloiairen gainean duela.

Zer ostia baino.

Gaur ere betikoa.

Jabea azaldu arte itxarongo dut. Hementxe, akazia eder honen itzalpean. Parkean umetxoak nola jolasten diren ikusiz.

Ez da azaltzen, ordea. Carrefourrera joango zen erosketak egitera. Scheiber!

Ezin ditut halako gauzak eraman. Errespetu falta, gizatxakeria, nonahi eta beti potroetatik ateratzen zaizuna egitea. Ez ba. Alemanian dagoeneko eman zioten egurra burutik behera.

Baina hemen ez. Hemen dena da utzikeria, erdipurdikoa, libertinoa, zikina, desnaturalizatua. Ez dute ikasten. Kaleak nazkagarri daude, nonahi arratoi, zakar, pintada, paskin horiztatu, guztia zerrikeria parerik gabeko eginda.

Jendeari denak berdin dio. Lurrean etzanda eskaleak, edozein izkinatan kartoi zahar batzuez estalita, pixusaina han eta hemen. Eta inork ez du ezer egiten. Joan daitezela euren etxera, alfer zikin mozkor alaeak!

Udaltzaingoari deitzen diot. Ez datoz. Betikoa. Okuparen batekin solasean ariko dira. Tiroka ateratzen nituen nik. Zabor-jendaila. Berriz deitzen dut. Ilunabarra. Umetxoak parketik erretiratzen dira pixkana-pixkana. Egunkaria irakurriz itxarongo dut. Berriz deitzen dut. Autoaren nagusia ez da azaltzen. Zerriz lepo egindako kamioi bat pasatzen da. Parkean ez dago lore puta bakar bat ere. Hemen dena birrintzen dute. Arbolen kontra husten dute maskuria, troglodita kuadrilla, zer nazka guztizkoa. Beste apur batean itxarongo dut. Pazientzia da nire bertuterik nagusienetakoa. Pazientziarik gabe ez dago salbabiderik, ezerez existentzialak jaten zaitu. Ostera deitzen dut, alferrik ari naizela badakidan arren. Ez dute erantzuten. Gaua badator, birjina, eta autoak hortxe jarraitzen du, legea hautsiz. Etsi egin beharko dut ba. Baina ez dezala uste. Argazkia matrikulari. Bihar Udaltzaingoaren bulegora joango naiz beste argazki mordoxka batekin, hilero bezala, jada denak paperean inprimatuak: lege-hauslea (ahal denean), lekua, ordua eta data.

Gerra honek aurrera jarraitzen du.

Sed lex, dura lex.



Goizean goiz jaiki, sukaldera joan, txorrotatik zurrutada bat ur edan dut. Nazkagarria dago. Beethoven itzali, beste zurrutada bat hartu dut. Kloro edo herdoil edo kobalto edo arrautza ustelen zaporea dauka.

Odolak irakiten dit.

Halakorik ez zen Alemanian inoiz gertatuko. Arnasa hartzen dut sakon. Ezin dut goizeko kafea prestatu. Bizilagunei galdetuko nieke, baina harreman txarra daukat haiekin. «Düsseldorfeko txibatoa» deitzen didate, putaseme halakook. Eta ni ez naiz txibatoa, guztiz alderantziz baizik. Denen begien bistan jartzen dut legea betetzen ez duen gaizkilea. Berdin dit auzoa bada ere. Badago bat igogailua ordaintzen ez duena, eta nik proposatu nuen tramankuluari giltza jartzea, hartara ordaintzen dutenek bakarrik erabili ahal dezaten. Epaia irabazi nuen. Orain ez didate bakerik ematen. Postontzia pintatzen didate, iraindu egiten naute, insolidario esaten, errukigabe.

Zer jakingo dute hauek denek nire solidaritaterik ezaz, nire hurkoarekiko errukiaz. Alemanian lan egin nuenean, Estatuko hainbat paper-fabrikatan ingeniari buru gisa ari-tu nintzenean, judu eta turkiar askori eman nien lan, garai hartan horrek esan nahi zuen guztiarekin. Eta beren sendiei

lagundu nien. Ni, insolidarioa. Ergel potrohandiok. Zer ja-
kingo dute hauek solidaritaterik ezaz.

Tira, bada. Kaleratu eta parkeko iturritik edaten dut. Ia bota ditut hesteak. Ameti ezina iruditzen zait. ¿Ez al di-
tugu akaso gure zergak ordaintzen? Ur eta Argi zentralera
deitzen dut. Herriko Zerbitzu publiko guztien zenbakiak
apuntatuak dauzkat telefonoan. Halaxe ikasi nuen Aleman-
nian. Disgustu aunitz ekiditen dituzu horrela eta larrialdie-
tan baita prestutasunez lagundu ere, behar izanez gero.

Inork ez du hartzen. Matxura konpontzen ariko dira. Induljentzia da nire beste bertuteetako bat. Akatsetatik ere
ikasten da. Denborari denbora eman behar zaio. Baina beti
muga batzuen barruan, zentzu komunak esaten dizun tarte
horren baitan, ez gehiago.

Agure pare bat parkeko iturriko uraren zaporeaz kexa-
ka ari da. Arrazoia ematen diet. Nire errotara ekartzen di-
tut, hemen esaten den bezala. Bat-batean, agureetako bat
irristatu, erori, baldokian kolpe eder bat hartu, eta zerraldo
gelditu da. Segituan Robert Walser idazle handia datorkit
burura, haren heriotza tristea.

Seko hil den arren, anbulantziari deitzen diot. Beste
agurea gogaikarri jarri baitzait. Deitzeko eta deitzeko, jada
ez dagoela ezer egiterik birritan esan diodan arren. Azaldu
diot zerraldo dagoela, hemen *Mesedeetako Ama Birjinaren*
Egunean paseatzera ateratzen duten santokristoa baino zi-
ploago. Negarrez hasten zait. Ezin dut gizasemeen malkoe-
kin, nire sentiberatasuna gainditzen dute. Esaten diot, bada,
joan dadila etxera, ni arduratuko naizela guztiaz. Anaia due-
la, erantzuten dit. Berdin didala osaba badu ere, diot nik.
Agurea malko artean desagertzen da, burumakur.

Anbulantzia.

Jada hilda dagoela adierazten diet. Zergatik ez diedan orduan zuzenean beilatokikoei deitu. Harri eta zur gelditzen naiz. Baina anbulantziako ergelak arrazoi du. Edo epaileari edo forentseari, gaineratzen du. Barkamen eskatzen diot: sentitzen dut, ez da berriro gertatuko.

Gorpua indarka ohatilan kargatu, eta beste aldetik erortzen zaie. Konk egiten du, konk-konk, soinu zatar bat, baina ez dut ezer esaten. Barretxoa etortzen zait ezpainetara, eta bi langileak ere barrez hasten dira, gogotik hasi ere. Atso batek gure jardun itsusiagatik errieta ematen digun arte.

Gertaera tristearen ondoren, berriz probatzen dut iturriko ura. Botagura ematen du. Atzera deitzen dut Ur eta Argi zentralera. Ez du inork hartzen. Betikoa. Matxurarekin ariko ote dira oraindik? Baina amaitu dira induljentziak. Ordu pare bateko tarte bada nahikoa. Parkeko ibiltariekin komentatzen dut urarekin gertatzen dena. Probatzera behartzen ditut sorbaldatik helduta. Denak beren onetik irteten dira. Ur eta Argi zentraleraino joatea proposatzen diet, azalpenak eskatzera. Hogeita hamasei bat lagun biltzen gara. Lelo imisolagarri eta arrasomolak inprobisatzen ditugu. Hara iristean, Guardia Zibilak itxaroten digu, debekatutako gomazko pilotez horniturik.

Inork ez du nik baino ziztu handiagoan alde egiten.



Kalera jaitsi, okindegian ogia eta egunkaria erosi, eta kon-
turatzen naiz dendako neska panpoxak karteltxo bat zintzi-
likatu duela: *No me quite pá*. Irribarre dagit. Zein gauza li-
rikoa eta, aldi berean, koertzitiboa. Zelako buru-argitasuna.
Dena sintagma bakarrean. Zelako neskato ederra!

Paseo ttiki bat ematen dut auzoan zehar. Burdindegia-
ko erakusleihoaren aurrean gelditzen naiz. Black Friday.
Emango dizut nik ostiral tenebrosoa. Ehuneko berrogeita
hamar bitarteko deskontuak iragartzen ditu. Baina atzoko
prezio berean daude. Kontrolatua daukat. Atzo ehuneko
berrogeita hamar igo zituen prezioak, gaur ehuneko be-
rrogeita hamarreko deskontua egiteko. Beraz, ez dago des-
konturik. Hori pajarua. Dendara sartu eta aurpegira esaten
diot iruzurgile bat dela, lukainka-mutur zikin bat. Salatu
egingo zaitut, lapurra. Nagusiak harrituarena egiten du. Ez
dakit zertaz ari zaren, ez dizut ametzuten. Badakit zer egi-
ten duzun prezioekin, Julian. Barka, Hernández naiz, Pedro
Hernández. Ez niri gaiez aldatu, Pedro. Txorizo bat zara.
Cantimpalokoa, dio berak. Barre txikiak erasaten nau. Se-
kula ez nuen *cantimpalo* hitza entzun. Ze ona, lehertu behar
dut barrez. Pedro ere barrez hasten da, biok botatzen ditugu
gibel-harriak. Deskojone bat, hemen esaten duten bezala.

Baina adi nago, beti babesten ditut bizkarrak. Nire herriko milizietan ikasi nuen. *Komer vieden Lassen freich*. Eta hementxe dator Hernández, Miguel, mailua eskuan, hiru zauri ariman dituela.

Antxintxika irteten naiz burdindegitik. Salaketa jarriko diot. Harategira noa. Xerra pare bat erosiko ditut. Trantze gogorra da niretzat. Harategira joatea, diot. Ezkongabea naiz. Birjina naiz. Zelibatua eta kastitatea praktikatzen ditut.

Neska-laguna neukan, Nelly goxoarekin ezkontzera nindoan. Ospakizunaren bezperan, Ludwigek deitu zidan, nire printzesak lan egiten zuen harategiko jabeak. Negarrez. Esan zidan, ahots-dardaraz, istripu bat izan zutela harategian. Zatoz, nik ezin dut bakarrik eta. Ziztuan joan nintzen. Iritsi, eta ikuskizun dantesko bat aurkitu nuen begien aurrean. Marroi bat, hemen esaten den bezala. Nelly maitea karotidan sartzen zitzaion altzairuzko kako batetik zintzilik zegoen. Mostradorearen atzean. Ludwigek azaldu zidan estropezu egin zuela errafiazko alfonbrearekin eta ia zuzenean untziak jartzeko kakoan zintzilikatu zela. Aingeru batek bezala egin du hegan, esan zidan. Pena handi bat. Eta ezin dut neuk bakarrik deskakotu, Karl, Nellyk laurogeita hamar kilo pisatzen ditu. Ni begira-begira nengoen. Ikuskizuna groteskoa iruditu zitzaidan, puntutxo bat zantarra. Hantxe zerri bat bezala zintzilik. Eta barre txikiak erasan zidan, halaxe gertatzen baitzait egoera ezohiko askoren aurrean. Defentsa-mekanismo bat da, Karl, esan zidan milizietako psikologoak, jada aspaldi xamar. Ludwigek estonaturik begiratu zidan. Ez zekien zer esan, zer egin. Beraz, saminean lagun izate aldera, barre algaraka hasi zen. Harategiko atea itxi

genuen, zer gerta ere. A ze putada, Karl, hain juxtu ezkon-bezperan. Tiradera batetik opari-paperean bilduriko pake-te bat eman zidan esku dardaratiz. Zuen ezkon-erregalia da, esan zidan berriro ere negar batean. Oparia ireki nuen: bi zerri-buru zituen giltzari bat. Legezko zilarra, esan zuen. Nire bularraren kontra besarkatu nuen, inoiz izan ez nuen anaia balitz bezala. Sekula ez dut detaile hau ahantziko, Ludwig. Legezko zilarra, Karl, kilate askokoa, ez pentsa hutsaren zera denik.

Bion artean saiatu ginen Nelly deskakotzen, baina ezin. Muin-muineraino zeukan sartua kakoa. Joder, kaka zaharra, bota nuen haserre. Oso lodi baitzegoen, esan zuen Ludwigek, min handiz. Ba burua mozten ez badiogu, proposatu nuen nik. Hobe poliziari deitzen badiogu, ala, Karl? Eta halaxe egin genuen.

Egun horretan nire bizitza betiko aldatu zen. Gomuta hura behin eta berriro datorkit burura, zimelezin. Horrexegatik diet erreparo apurño bat harategiei. Errespetu naturaz gaindiko eta izugarri bat sorrarazten didate, Hoffmannen ipuinek bezalaxe.

Erosi ditut bada bi xerrak eta etxeratu egin naiz. Eskaratzean, igogailu zaharrean harrapatua, hirugarren solairuko auzoa topatu dut, ero baten gisa laguntza eskatuz. «Peineta» bat egin diot. Eman diezaiotela atzeko zulotik.

Etxean, Wagner pixka bat eta botila bat ardo bazkari-legeari laguntzeko. Gero, siestara joan naiz.